**UDALBATZAK 2010EKO UZTAILAREN 16AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko uztailaren hamaseiko goizeko 08:50 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA (Gai Zerrendako galdera-eskaeren puntua ikusteko orduan bilkuratik alde egin du)
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA (Gai Zerrendako galdera-eskaeren puntua ikusteko orduan bilkuratik alde egin du)
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN (Gai Zerrendako galdera-eskaeren puntua ikusteko orduan bilkuratik alde egin du)
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ

Ez dira etorri baina ezinetorria adierazi dute Mikel DURAN GONZALO jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ezkonduta oporretan dagoelako, Maite Peña Lopez andreak (EAJ/PNV) eta Joxe Burgos Viñaras jaunak (Alkarbide), biek

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 16 DE JULIO DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:50 horas del día dieciséis de julio del año dos mil diez, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Luis Ignacio ANDRÉS JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA. (Se hace constar que abandonó la sesión durante el transcurso del punto de Ruegos y preguntas).
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luís Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA (Se hace constar que abandonó la sesión durante el transcurso del punto de Ruegos y preguntas)
- Venancio GRAVINA ESNAL
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN (Se hace constar que abandonó la sesión durante el transcurso del punto de Ruegos y preguntas)
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ

No asisten, excusando su asistencia los Sres., Mikel DURAN GONZALO (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) por encontrarse de vacaciones por matrimonio, Maite Peña López (EAJ/PNV) y Joxe Burgos Viñaras (Alkarbide), ambos, por encontrarse


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gaixotasuneko baja dutelako.

de baja por enfermedad.

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1. Udalbatzak 2010eko apirilaren 30ean eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

**1.- Lectura y aprobación, en su caso, del Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 30 abril de 2010.**

Idazkariak 2010eko apirilaren 30eko ohiko bilkurari dagokion aktak irakurritakoan.

Sometida a votación el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 30 abril de 2010.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

- **Onartzea** 2010eko apirilaren 30eko ohiko bilkurari dagokion akta.

- **Aprobar** el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 30 abril de 2010.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (728 zk.tik 890 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1001 zk.tik 1174 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 728 al 890, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 1001 al 1174, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Idazkariak Alkatetzak (728 zk.tik 890 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (1001 zk.tik 1174 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emaniko ebazpenen berri eman du.

Se da cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 728 al 890, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 1001 al 1174, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**3. Proposamena: hirilur bizilekuan finkaturiko zenbait eremuetan dauden lokalak hirugarren erabileratik bizileku bihurtzeko jarduketak arautzen dituen ordenantzaren 4. Aldaketa eta berrikusketaren hasierako onespena.**

**3.- Propuesta de aprobación inicial de la 4ª Modificación y revisión de la Ordenanza Reguladora de las Actuaciones Tendentes a la Modificación de Uso, de Terciario a Residencial, en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados de suelo urbano residencial.**

Udalbatzak, 2001eko irailaren 26an eginiko

El Pleno de la Corporación, en sesión



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bilkuran behin betiko onespena eman zion *Bizitegirako hiri lurreko hainbat esparru finkatuetan kokatzen diren lokaletan hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa egiteko jardunak arautzen dituen ordenantzari.*

celebrada con fecha 26 de septiembre de 2001, acordó aprobar definitivamente la *Ordenanza Reguladora de las actuaciones tendentes a la modificación de uso, de terciario a residencial, en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados de suelo urbano residencial.*

Geroztik, Ordenantzan ondoko aldaketak eta berrikuspenak egin dira:

Posteriormente, se han producido las siguientes modificaciones y revisiones de la referida Ordenanza:

- 1. aldaketa. Udalbatzak onartu zuen 2002ko maiatzaren 23an.

- 1ª Modificación, aprobada por el Pleno de la Corporación de fecha 23 de mayo de 2002.

- 2. aldaketa. Udalbatzak onartu zuen 2004ko urriaren 15ean.

- 2ª Modificación y Revisión, aprobada por el Pleno de la Corporación de fecha 15 de octubre de 2004.

- 3. aldaketa. Udalbatzak onartu zuen 2007ko urriaren 25ean.

- 3ª Modificación y Revisión: aprobada por el Pleno de la Corporación de fecha 25 de octubre de 2007.

Ordenantzaren indarraldia 3 urtekoa zenez, 2010eko urriaren 17an amaituko da, eta beraz, dokumentuan jasota dagoenaren arabera, Udalak berrikusi behar ditu gai honen inguruan batera emandako zirkunstantziak.

La vigencia de dicha Ordenanza, de 3 años, finaliza el próximo día 17 de octubre de 2010, por lo que según lo recogido en el documento, procede por parte del Ayuntamiento la revisión de las circunstancias concurrentes en esta materia.

Udal Zerbitzu Teknikoek 2010eko uztailean egin dute *Bizitegirako hiri lurreko hainbat esparru finkatuetan kokatzen diren lokaletan hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa egiteko jardunak arautzen dituen ordenantzaren 4. aldaketa* egiteko testua.

Por parte de los Servicios Técnicos Municipales, se ha procedido a elaborar con fecha julio de 2010, el texto de la *4ª Modificación y revisión de la Ordenanza Reguladora de las Actuaciones Tendentes a la Modificación de Uso, de Terciario a Residencial, en locales ubicadeos en determinadeos ámbitos consolidados de suelo urbano residencial.*

2010eko uztailaren 7an, udal arkitekto Ramon Ruiz Mendoza jaunak 4. aldaketa eta Ordenantza berrikusteko dokumentuari hasierako onespena ematearen aldeko txostena egin zuen.

Con fecha 7 de julio de 2010, el arquitecto municipal Ramón Ruiz de Mendoza, emite informe favorable a la aprobación inicial del documento de la 4ª Modificación y Revisión de la Ordenanza mencionada.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Era berean, 2010eko uztailaren 7an, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak gaiari buruzko txostena egin zuen.

***Legeria.***

Tokiko Araubide-oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1, 25.1 y 25.2. d, 47.1, 49, 70.2 eta 84 artikuluetan xedatutakoa; Tokiko Araubide-gaietan indarrean dauden Berreginiko Testuaren 55 eta 56 artikuluak; AJAren 172. artikulua; Tokiko Udalbatzen Zerbitzurako Araudiaren 8. artikulua eta ondorengoak; Lurzoru eta Hirigintzako 2/06 Legearen 75 eta 207 artikuluak, eta Hirigintza Diziplinako Araudiaren 3. artikulua; Errenteriako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren 2.7.04 artikulua.

Hirigintzako informazio-batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du, duela ia hiru urte, hirugarren aldaketa onartu zenean, planteatu zela aldaketa medio egingo diren etxebizitza berriak tasatu moduan edo eskaintzea. Gainera, orduan bezala, esan behar du txostena erdaraz bakarrik eman zaiela. Bestalde, orduan bezalaxe ere, euren ustez, etxebizitzen arazoa, arazo larria izaten jarraitzen du, eta horregatik, arazoa aztertu egin behar da, hemen burutzen den etxebizitza-politika ez delako zuzena. Euren aburuz, lehenengo urratsa, beharrik dagoen edo ez ikusi beharko litzateke, eta ez adabakiz jositako politika burutu. Euren iritziz, behin beharrak eta baldintzak ikusi ondoren, hartu beharko lirateke erabakiak, eta horiek beste bide batetik joan beharko lukete. Eurek segitzen dute azpimarratzen hemen ez dela alokairuan etxebizitzak emateko politikarik

Igualmente, con fecha 7 de julio de 2010, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella, emite informe jurídico al respecto.

***Legislación aplicable.-***

La legislación aplicable viene establecida en los artículos 4.1, 25.1 y 25.2. d, 47.1, 49, 70.2 y 84 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, artículo 172 del R.O.F., artículo 8 y siguientes del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, artículos 75 y 207 de la ley 2/06 de Suelo y Urbanismo y 3 del Reglamento de Disciplina Urbanística, artículo 2.7.04 de las normas urbanísticas del Plan General de ordenación Urbana de la Villa de Errenteria.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera la Sra. Cano (Concejales no Adscritos) manifestando que cuando se aprobó la tercera modificación, se planteó ofrecer como viviendas tasadas las nuevas viviendas que surgieran como consecuencia de la modificación. Además, como entonces, tiene que decir que el informe solamente se les ha entregado en castellano. Por otra parte, también como entonces, piensan que el problema de la vivienda sigue siendo grave, y por dicho motivo creen que habría que estudiar el asunto, debido a que la política de vivienda que aquí se lleva a cabo no es la correcta. Consideran que en primer lugar habría que ver si existe o no la necesidad, y no realizar una política plagada de parcheo. A su juicio, una vez vistas las necesidades, habría que adoptar las oportunas decisiones, las cuales tendrían que ir por otra vía distinta a la de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bultzatzen. Era berean, hemen ez da beste herrietan bezala, esaterako, Amezketan, etxebizitza hauei izaera babesturik ematen. Azken batean ikusten dute gaiari ez zaiola heltzen eta, aurrekoetan bezala, ekimen pribatuaren eskuetan uzten dela etxebizitzak eskaintzeko afera. Hori guztiagatik, eurek aurka bozkatuko dute.

ahora. En ese sentido, ellos siguen afirmando que aquí no se impulsan políticas de vivienda en alquiler. Así mismo, consideran que no se da, como en otros municipios, por ejemplo en Amezketa, el carácter de protegido a este tipo de viviendas. En definitiva, ven que el tema no se aborda, y como en las anteriores ocasiones, el asunto se deja en manos de la iniciativa privada. Por todo ello, votarán en contra.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du gai honek urteak daramazkiela, eta horregatik dela hau laugarren aldaketa. Berak dakienez, bere garaian saiatu ziren ea babes ofizialeko etxebizitzak, tasatuak, etab. egin zitezkeen, baina ikusi zuten legeak ez zuela inolako erraztasunik ematen, besteak beste, eskubide zenbait, etab. dituzten lokal pribatuez hitz egiten ari direlako. Hortaz, bada, bere garaian eztabaidaturiko kontua da eta hark eman zuena eman zuen, esan du. Gainera, bere ustetan, hirugarren sektorerako ziren hainbat lokal etxebizitza bilakatzeko politikaren emaitza arrakastatsua izan da. Ondorioz, familia askok etxebizitzak erdietsi du, bateren batek marjinalak, gatazka-iturri, Errenteriako jendearentzako eta irudirako ez zirela batere gomendagarriak iragartzen bazuen ere. Ondorioz, berak justu kontrakoa gertatu dela uste du, hau da, hala-hola, arratoi, hauts, paskinez beterik, etab.ez zeuden lokal itxiak nahiko etxebizitza duinak izatera pasa dira. Gainera, berak dakien heinean, aldaketa egiteko eskariak bere horretan darrai, eta horrek funtzionatzen duela esan nahi du. Laugarren aldaketa honetan —aldaketa deitu zaio izen bat eman bat eman behar zitzaiolako—, bera oker ez badago, aldaketa txiki-txiki batzuek bakarrik egin dira, hots, lehen zegoenetik auzo bateko espaloiaz baino gehiago ez da aldatu. Eta, berriro dio, etxebizitza bilakaturiko lokal askok prozesu hori jarraitu dutela. Kontu jakina da eragiketa gehien-gehienak jada eginda daudela, baina eskaerak etengabe egiten jarraitzen dute, eta ez du uste, ez lehen egindakoek, ez bizilagunek, ez ingurukoek

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que es un tema que se lleva tratando desde hace años, por eso la presente es la cuarta modificiación. Cree que en su día se intentó ver si cabía la fórmula de destinar a vivienda de VPO, vivienda tasada, etc., y se encontraron con que la Ley no facilitaba nada de esto, puesto que están hablando de locales privados que tienen toda una serie de derechos adquiridos, etc. Por tanto, es un debate que hubo en su momento y eso es lo que dio de sí. Le consta que a lo largo de estos años, el resultado de la política de reconvertir cantidad y cantidad de locales terciarios en vivienda ha sido un éxito. Esto ha permitido a muchas familias acceder a viviendas que algunos auguraban iban a ser marginales, fuente de conflicto, en absoluto recomendables para las personas ni para la imagen que se iba a dar de Errenteria. Sin embargo, él piensa que se ha pasado a todo lo contrario, es decir, de tener locales cerrados de cualquier manera, con ratas, con polvo, con pasquines permanentes, etc., a conseguirse unas viviendas bastante dignas. Hasta donde él sabe este hecho se sigue produciendo, luego eso es la muestra de que está funcionando. En esta cuarta modificación, que se llama modificación porque es el nombre que hay que darle, se han introducido un mínimo, mínimo, mínimo de variantes. Si no está equivocado, sobre lo que había se ha modificado unicamente una acera de un barrio. Repite que gran número de locales reconvertidos en vivienda han seguido ese proceso, logicamente el grueso de operaciones ya ha pasado, pero hay un goteo permanente de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

kexu daudenik eragiketa mota hauekiko, nahiz eta bakoitza libre den nahi duena pentsatzeko. Udalak etxebizitza sozialak egiteko ekintzen inguruan, berak askotan esan izan du ez duela Udalak bakarrik jarri behar helburu horretarako dirua, ez baitu. Gaineratu duenez, harremanak izan dituzte bai erakunde pribatuekin bai publikoekin. Horrela, ez dute ahaztu behar Gaztaño auzoan Eusko Jaurlaritzari saldu zioten udal lursail batean babes ofizialeko hogeita hamar etxebizitza baino gehiago egitekoak direla. Halaber, ez dute ahaztu behar Arramendi mendi mazelan zuzkidura-ekipamenduetarako, era berean, Eusko Jaurlaritzari beste lursail bat laga ziotela, hain zuzen, laster bertan, gazteentzako 50 etxebizitza, gero alokairuan eman ahal izateko, egingo baitituzte. Beraz, bada, egiten ari dira, eta saiatzen ari dira Udalak inbertitzeko ahalmena duen lekuetan, esaterako, Kaputxino-Galtzarabordan edo oraingo egoera dela eta geldirik geratu den bestetan (laster mugitzen hasiko direla, zantzuak daude) egin daitezen.

solicitudes y no cree que ni usuarios, ni vecinos, ni el entorno, tengan ninguna queja sobre este tipo de operación, aunque cada cual es libre de pensar lo que quiera. En cuanto a acciones promovidas por el Ayuntamiento en vivienda social, ha dicho varias veces que no solo es el Ayuntamiento el que tiene que poner el dinero, que no tiene, para ese objeto. Se han hecho gestiones, que son conocidas, tanto con entes privados como públicos. No hay que olvidar que en el Barrio de Gaztaño está pendiente de desarrollo una operación en una parcela que fue municipal y se vendió al Gobierno Vasco, quien allí debe realizar mas de treinta viviendas de VPO. Tampoco hay que olvidar la cesión de un equipamiento dotacional en la falda del monte Arramendi, donde en breve, también el Gobierno Vasco, comenzará la construcción de 50 equipamientos para jóvenes en régimen de alquiler. Por tanto se hace, y están intentando que se siga en otros lugares donde el Ayuntamiento tiene capacidad de intervenir, como es la parte de Kaputxinos-Galtzaraborda o algún otro desarrollo que ha quedado parado por la situación actual, pero que todo indica que puede empezar a moverse en breve.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP), aurkako 6 boto (atxiki gabeko zinegotziak) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 10 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP), 6 votos en contra (Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak)

**E R A B A K I  D U**

***A C U E R D A***

1. **Hasierako onespena ematea *Bizitegirako hiri lurreko hainbat esparru finkatuetan kokatzen diren lokaletan hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa egiteko jardunak arautzen dituen ordenantzaren 4. aldaketari***, eranskin gisa

1º.- **Aprobar inicialmente** la ***4ª Modificación y revisión de la Ordenanza Reguladora de las Actuaciones Tendentes a la Modificación de Uso, de Terciario a Residencial, en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados de suelo urbano residencial, que se***



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

espedientean jasota dagoena.

2. Jendeak erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko espedientea **jendaurrean jartzea** 30 egunez, horretarako iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen den egunkari batean eta Udaleko iragarki-oholean argitara emango delarik. Norbaitek egingo balitu, Udalbatzak erabakiko lituzke, eta inork ez balu egingo, berriz, aldaketa behin-betiko onartutzat joko litzateke.

3. Erabaki honen **berri ematea** erabilera aldatzeko ordenantzak hartzen duen eremuan lokalak sartzeko eskaera egin duten lagunei.

**4. Proposamena: Udal honek 2009ko abenduaren 31n zeukan Ondare eta Eskubideen inbentarioa zuzentzeko.**

2003ko apirilaren 25eko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen, 2002ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa.

2003ko ekainaren 27ko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen 2003ko martxoaren 31ko Inbentarioaren zuzenketa.

2005eko apirilaren 29ko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen, 2004ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa.

2007ko apirilaren 27ko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen, 2007ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa.

***adjunta como anexo al expediente***.

2º.- **Someter** el expediente a información pública por el plazo de 30 días, mediante anuncio a insertar en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia, así como en el Tablón de Anuncios Municipal, a fin de que se puedan presentar reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán ser resueltas por la Corporación. De no producirse, la Modificación se considerará definitivamente aprobada.

3º.- **Notificar** el presente acuerdo a las personas que han solicitado la inclusión de locales en el ámbito de la Ordenanza de Cambio de Uso.

**4.- Propuesta de aprobación de la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento a 31 de diciembre de 2009.**

Visto que por acuerdo plenario de fecha 25 de abril de 2003, se aprobó la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento referido al 31 de diciembre de 2002.

Visto que por acuerdo plenario de fecha 27 de junio de 2003, se aprobó la rectificación del Inventario, referido al 31 de marzo de 2003.

Visto que por acuerdo plenario de fecha 29 de abril de 2005, se aprobó la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento referido al 31 de diciembre de 2004.

Visto que por acuerdo plenario de fecha 27 de abril de 2007, se aprobó la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento referido al 31 de Marzo de 2007.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2008ko maiatzaren 30eko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen, 2007ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa.

Visto que por acuerdo plenario de fecha 30 de mayo de 2008, se aprobó la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento referido al 31 de diciembre de 2007.

2009ko azaroaren 27ko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen, 2008ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa.

Visto que por acuerdo plenario de fecha 27 de noviembre de 2009, se aprobó la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento referido al 31 de diciembre de 2008.

Kontratazioa eta Ondarea saileko Arduradunak 2010eko uztailaren 1ean gaiari buruzko txostena egin du.

Visto el informe del Responsable de Contratación y Patrimonio de fecha 1 julio de 2010.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du une horretan, ziur aski bilkuran dauden 18 zinegotziek errekonozituko zuketela bozkatzeko proposatzen dena gaizki eginda dagoela, eta beraz, ezingo zuketela aldeko bozkarik eman. Aldiz, bilkura-aretoan daudenez, batek baino gehiagok proposamenaren aldeko bozkatuko du. Hau dio, hain zuzen, enpresa-ikuskatzaileak, urteak joan urteak etorri, gauza bera esaten duelako. Horrela, aurreko urteko aktak hartuko balituzte, ziur aski gaur, duela urte bat esaten zutena errepikatuko lukete. Zeren eta, Udal honen aurrekontu-mugimendu gehienak ez baitira jasotzen bozkatzeko ekarri den inbentarioan. Oso laburra den txostena hartzen badute, ikusiko dute gehitzen diren gauza bakarrak lur-sailak eta Udalaren lurzoru-ondarea direla. Argi dago —dio— honek ez lukeela horrela izan beharko, ez da ondo egina eta arazoa sortzen da horretara ohitzen ari direlako. Gainera, horretaz jabetuta egonda ere, ez da beste modu batera izan dadin erremediorik jartzen. Bere taldea aurreko urtean abstenitu zen, baina urte bat igaro ondoren berdin jarraitzen

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que si no estuvieran en el Pleno en este momento, posiblemente los 18 Concejales presentes reconocerían que lo que se propone a votación está mal hecho y por tanto no podrían votar a favor. Como están en el Pleno, presentes en la Sala, más de uno votará a favor de la propuesta que se trae a votación. Dice esto porque la empresa auditora, un año sí y al otro también dice lo mismo. Podrían coger las actas del año pasado y seguramente hoy repetirán en alguna medida lo que decían hace un año. Y es que, basicamente, la mayoría de los movimientos presupuestarios de este Ayuntamiento no tienen reflejo en el inventario que se trae a votación. Si cogen el informe, que es muy breve, ven que lo único que se incorpora son parcelas y patrimonio municipal del suelo. Evidentemente, esto no debiera ser así, no está bien hecho y el problema es que se están acostumbrando a que sea así. A pesar de ser conscientes de ello, no se ponen los medios para que sea de otra forma. Su Grupo el año pasado se abstuvo, pero como ha

dutenez, orain aurka bozkatuko du.

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du urtero gauza bera aitatzen dutela, izan ere, Udalaren eskubide eta ondareen inbentarioa ez dago osorik, ez delako Kontu-ikuskaritzak gomendatzen duena kontuan hartzen. Horrela, inbentarioan ez dira jasotzen Udalaren eraikinetan dauden altzariak, makinariak, tresneria, etab. Ez daude ere aurrekontuetan eginiko mugimenduak, ezta ondare eta eskubide guztiak ere. Bestalde, ez dakite txosten teknikoan aipatzen den inbentarioa kudeatzeko programa ere erosi ote duten. Teknikariak aipatzen du aurtengo aurrekontuarekin programa bat erosi behar zela, baina ez dakitenez, horixe galdetu nahi diote Alkate jaunari. Beraz, uste du esan dezaketela Udalbatzak eta Alkateak ez dakitela zenbateko ondare eta eskubide dituzten, besteak beste, inbentarioa ez dagoelako eguneratua. Horrenbestez, ezin dute proposamenaren aldeko botorik eman.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du gai honetan Ezker Batua-Berdeak-eko ordezkariak, urtero antzeko eztabaida ematen dela esaten duenean, arrazoia duela. Bere iritziz, zehatz-mehatz eginiko inbentarioa dela goraipatzen ari gabe, araudiaren gutxiengoak betetzen ditu, izan ere, ordura arte Aldundiak ez die sekula eragozpiderik ipini. Bere aburuz ez dute larritasun bera inbentarioan lur-sail bat edo erakundearen ondareak sartu ez izanak, eta Udalaren aulki zenbait sartu ez izanak. Bere ustez jabetu behar dira inbentario guztiak ez duela kategori bera. Hori horrela, berak badaki Hirigintza saila, Ondarearenarekin koordinatuz, lanean aritu dela epe horretan. Orobat badaki informatika-programa famatu hori erosteko puntuan daudela, teknikoen arabera, zorrotzago eramatea ahalbideratu edo erraztuko duena. Hain zuzen, gai horri buruz hitz egin zuen

pasado un año y el tema sigue igual, van a votar en contra.

* Interviene en euskera el Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) manifestando que todos los años vienen a decir lo mismo, entre otras cosas, porque no se tienen en consideración las recomendaciones que realiza la Auditoria. En ese sentido no se recoge el mobiliario, la maquinaria, utensillos, etc. existentes en los edificios municipales. Asimismo, no se reflejan los movimientos habidos en los presupuestos, ni tampoco todos los bienes y derechos. Por otra parte, no saben si se ha adquirido el programa para gestionar el inventario, ya que, aunque el técnico menciona que con los presupuestos actuales se iba adquirir un programa, ellos lo desconocen, motivo por el cual trasladan la pregunta al Sr. Alcalde. Por todo ello, piensa que puede manifestar que el Ayuntamiento y el Alcalde desconocen el patrimonio y los derechos de que disponen, debido a que el inventario no está actualizado. En consecuencia, dice que no pueden votar a favor de la propuesta.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifesta que sobre este tema tiene razón el representante de Ezker Batua-Berdeak cuando señala que todos los años suscita un debate equivalente. Cree que sin poder alardear de un inventario exhaustivo, sí que cumplen el mínimo de la normativa, puesto que Diputación a fecha de hoy nunca les ha puesto ningún reparo. Piensa que no tiene la misma gravedad el que faltara en el inventario una parcela o bienes de entidad, o el que no se sepa cuantas sillas hay en el Ayuntamiento. Tienen que ser conscientes de que no todo el inventario tiene la misma categoría. Dicho esto, le consta que el Departamento de Urbanismo, en coordinación con el de Patrimonio, ha estado trabajando todo este tiempo. Le consta también que están a punto de adquirir ese famoso programa o aplicación informática que, según le dicen los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

duela hamabost egun eta ziurtatu zioten argi zutela zer egin behar zuten, eta hortaz, erantzuna berehala erosiko dutela izan behar du, hori Madalenak ondoren izango dela uste badu ere. Eta, berriro dio, gaia ez dela hanpatu behar inbentarioan xehetasun txiki batzuk falta direlako. Egokia dela horiek jasotzea, baina ez direla hutsetik abiatzen udal ondarearen aferan.

técnicos, debe posibilitar o facilitar que esto se lleve a cabo con mayor finura. Habló de ello hace quince días y le aseguraron que ya tenían claro lo que iban a hacer y por tanto la respuesta que tiene que dar es que se va a comprar inmediatamente, aunque supone que ya será después de Magdalenas. Repite que no hay que magnificar el tema porque puedan faltar ciertos detalles en el inventario, que es correcto que estén, pero tampoco se está a ciegas sobre lo que es el patrimonio municipal.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP) eta aurkako 8 botorekin (atxiki gabeko zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 10 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP) y 8 votos en contra (Concejales no Adscritos y Ezker Batua-Berdeak).

**E R A B A K I D U**

**A C U E R DA**

1.- **Onespena ematea** 2009ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketari (Espedientean eranskin gisa jasota dagoena).

2.- Gipuzkoako Foru Aldundira **bidaltzea**, Inbentarioaren zuzenketa horren kopia bat, Idazkari Orokorrak baimendu eta Alkate-lehendakariak emandako oniritziarekin, Entitate Lokalen Ondasunei buruzko Araudiko 31. artikuluak agintzen duenari jarraiki.

**1º.- APROBAR** la rectificación del Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento referido al 31 de diciembre de 2009, que consta como Anexo a este expediente.

**2º.- REMITIR** a la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme preceptúa el artículo 31 del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales, una copia de la citada rectificación del Inventario autorizada por el Secretario General de la Corporación y con el Visto Bueno del Alcalde-Presidente.

**5. Proposamena: Galtzaraborda Mendebaldeko 10. Arearen (Frontoia) 10/01 E.U.an Galtzarabordako Parke eta Urdaburuko garajeen kudeaketa emateko.**

**5.- Propuesta de otorgamiento de la gestión del aparcamiento Garajes Galtzaraborda Parke y Urdaburu en U.I. 10/01: Frontón AREA 10: Galtzaraborda Oeste.**

Lehenik, gaia zegokion batzordean ez delako ikusia izan, gehiengoak, aldeko 12 botorekin

Previamente se declara la urgencia del presente asunto, por mayoría, con 12 votos a favor



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

(Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak y PP) eta aurkako 6 botoz (atxiki gabeko zinegotziak) berori presazkoa jo du.

(Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak y PP) y 6 votos en contra (Concejales no Adscritos) por no haberse tratado en la comisión correspondiente.

Errenteria Garatuz Udal Sozietatea, S.A.k dituen helburuen artean aparkaleku publikoak kudeatzea du.

Vista la existencia de la Sociedad Municipal Errenteria Garatuz, S.A., que tiene entre sus fines la gestión de aparcamientos públicos.

Galtzaraborda Mendebaldeko 10. Areako (Frontoia) 10/01 E.U.an, Galtzaraborda auzoan, aparkalekuak egitea interesgarritzat jo da Udal Planeamentuko determinazioak betetzearren.

Resultando interesante proceder a la construcción de un aparcamiento en el Bº de Galtzaraborda en la U.I. 10/01: Frontón AREA 10: Galtzaraborda Oeste, en cumplimiento de las determinaciones del Planeamiento Municipal.

Goian aitaturiko sozietatearen Administrazio Kontseiluak, uztailaren 12an eginiko bileran, erabaki du Udalari eskatzea aparkalekuaren kudeaketa, eraikitzea barne, eskatzea.

Visto que el Consejo de Administración de la Sociedad arriba citada en sesión celebrada el día 12 de julio del presente, ha adoptado el acuerdo de solicitar al Ayuntamiento que se le otorgue la gestión del citado aparcamiento, incluida la construcción.

Kontratazio eta Ondare Saileko arduradunak 2010eko uztailaren 12an eginiko txostena ikusi dute.

Visto el informe del Responsable de Contratación y Patrimonio, de fecha 12 de julio de 2010.

Eta Alkate-presidentearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta del Alcalde-Presidente.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Errenteria Garatuz sozietateko ordezkariek ondo aski gogoratzen duten bezala, gaia Administrazio Kontseiluaren azken bilera ikusi zen eta onartu zen Udalak lurrak laga behar zituela garajeak, etab. egiteko. Gaineratu duenez, kontua ezaguna da, baina ez delako batzorde bakar batean ikusia izan, presazkoa jotzeko bozkatuko dute.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que como bien recuerdan los representantes, se trató en el último Consejo de Administración de la Sociedad Errenteria Garatuz y se aceptó la cesión que el Ayuntamiento debe hacer de los terrenos que se acaban de mencionar para el desarrollo de los garajes, etc. La historia es conocida y al no haber sido informada en ninguna Comisión, da motivo a que haya tenido que someter a votación su urgencia.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du eurek aurka bozkatu dutela, hain zuzen ez dutelako uste presazkoa denik. Azken batean, eurentzat ez da lehentasunezko kontu bat obra hauek exekutatzea, ez dute inolako urgentziarik ikusten eta horregatik bozkatu dute aurka.

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) manifiesta que el voto negativo de su Grupo a la tramitación de este asunto es porque consideran que no es un tema urgente. En definitiva, para ellos no es una prioridad llevar a cabo la ejecución de esas obras, no ven ninguna urgencia de ser tratado el tema y por eso han votado en contra.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), aitzitik, esan du gogoratuko dutela Gerenteak nola esan zien igogailuak egin ahal izateko —martxan daudenak— beharrezkoa zela murruak egitea eta obra bat eta bestearen artean koordinazioren bat eman behar dela. Horixe da presaren arrazoia, ez du berak asmatu, Gerenteak esan zien, gaineratu du.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que sin embargo, recordarán que el Gerente en su intervención, les decía que la construcción de los ascensores, que ya está en marcha, exige la construcción de los muros correspondientes y requiere una determinada coordinación entre una obra y otra. Ese es el motivo de la urgencia, no se la ha inventado él, sino que así lo presentó el Gerente.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du bere Taldeak presaren aldeko bozka eman duela, hain zuzen, euren iritziz, edozein Talderen proposamenak eztabaidatzea merezi dutelako, orain arte halaxe egin dute eta geratzen zaien legegintzaldian halaxe egingo dute. Hala ere, elkarrekikotasunez edo, zera eskatuko luke: bere Taldeak, presazko bozka emateko nork eskatzen duen begiratu gabe, alde bozkatzen duen bezala, gainontzeko Taldeek ere onartzea presazko prozedura bidez gauzak eztabaidatzea. Puntuari dagokionez, berriz, auzo honetan egiten ari diren beste obrei buruz bezala, aldeko zein aurkako iritziak entzun dituzte, eta horiek Talde gisa jarrera bat hartzeko balio izan die. Horrela, Parke-Urdaburu kaleetako garajeen inguruan oraindik ez dute argudio argi bat aurkitu zergatik den obra hori beharrezkoa. Gainera, uste du hori ez zaiela eurei bakarrik gertatu —taldea osatzen duten bi pertsonen arazo partikular bat izango litzakeelako—, baizik eta oraindik ez dute inor topatu obra horiek egitearen alde dagoenik. Bestalde —afera honetan oso garrantzitsua—, ez dago demostratuta inguru horretako bizilagunek

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifiesta que en principio su Grupo ha votado a favor de la urgencia, de la misma forma que ha hecho y hará en lo que queda de legislatura, porque entienden que las propuestas de cualquiera de los Grupos presentes merecen ser discutidas. En justa correspondencia pediría que, de la misma forma que su Grupo vota a favor de la urgencia más allá de quien la pida, sea una costumbre del resto de los Grupos el aceptar las discusiones cuando se recurra al procedimiento de urgencia. En relación al punto concreto, de la misma forma de otras obras que se están realizando en ese barrio, han escuchado argumentos a favor y en contra de las mismas, y les han servido para adoptar una posición como Grupo. En cuanto a los garajes de las Calles Parque-Urdaburu, todavía no han escuchado ni encontrado argumentos claros del por qué es necesaria dicha obra. Cree que esto no solo les ha ocurrido a ellos, que sería un problema particular de las dos personas que componen su Grupo, sino que no los han encontrado ni quienes están a favor de que se haga dicha obra. Por un lado, fundamental en este tema,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eskari hori egiten dutenik. Izan ere, oraingoz, ustezko aparkaleku beharrentzako (hori benetakoa baita) nahiko eskari gutxi egin dira. Horregatik, berak zera galdetuko luke: garaje horiek eginda konponduko al da aparkaleku-arazoa?. Kezkatzen dien beste kontu bat zera da: oraindik ez die inork demostratu hori denik lekurik hoberena auzo horretan garaje-mota horiek egiteko. Edonola ere, uste dutenez hori ez dela gauzak egiteko bidea eta modua, ez dute proposamenaren alde bozkatuko.

no está demostrada la demanda por parte de las vecinas y vecinos de la zona, de hecho, hasta el momento, la demanda es relativamente baja para la supuesta necesidad que existe, que es una necesidad real de aparcamientos. Una pregunta que se pueden hacer es si los garajes van a dar salida a estos problemas de aparcamiento que hay. Otro tema que les preocupa es que nadie les haya demostrado a fecha de hoy que ésta sea la alternativa más económica, frente a otras posibles ubicaciones para este tipo de garajes en el mismo barrio. Lo único que encuentran que está demostrada es la voluntad del Equipo de Gobierno de hacer los garajes. En todo caso, como piensan que ese no es el camino ni la forma, no votarán a favor de la propuesta que se presenta.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du, ikuspuntu formal batetik, proposamenak ez lukeela inolako eztabaidarik sortu beharko. Azken batean, duela urte batzuk erabaki zutelako Sozietate Publiko bat eratzea, besteak beste, garaje-eraiketa kudeatu eta sustatzeko, eta, “besteak beste” dio, helburu nagusia babes ofizialeko etxebizitzak sustatu eta eraikitzea zelako, horietako bakar bat egin ez bada ere. Lehen esan duen moduan, proposamenak berez ez luke inolako eztabaidarik eragin beharko, baina uste dute proposamenak zer suposatzen duenari buruzko azterlan sakonagoa egin beharko litzakeela, eta azterlan horren barruan, jakina, ezin dute alboan utzi une horretako egoera ekonomikoa. Hori horrela, 2009an Udaleko zerbitzu teknikoek gastuak murriztea aholkatu zuten, hain zuzen, egoera ekonomikoa zen bezalakoa zelako. 2008. urtea 600.000 euro —100 milioi pezeta paseak— baino gehiago defizitarekin amaitu zuten. 2009. urtean lehen esandako aholku hori egin zioten eta 2010. urtean planteatu zen gastuak murrizteko politikarekin jarraitzea, egoera ekonomikoa ez delako inondik inora hobetzen ari. Orduan, gainontzeko taldeek, baita herritarrek ere, zera galdetu dezakete: garajeak egitea Gobernu Taldearentzat lehentasun bat al da?.

* Interviene el Sr. Murua (Concejales no Adscritos) manifestando que desde un punto de vista formal, la propuesta en si misma no debería provocar ningún tipo de discusión. Al fin y al cabo, hace unos años se tomó la decisión de formar una Sociedad Pública para gestionar, entre otras cosas, la promoción y construcción de garajes, y dice “entre otras cosas”, porque el fin principal era la promoción y construcción de vivienda de protección oficial, cosa que brilla por su ausencia. Como ha dicho, la propuesta en si misma no debería provocar ningún tipo de discusión, pero piensan que debiera hacerse un analisis más completo de lo que la propuesta supone, y desde luego no pueden obviar dentro de ese analisis, la situación económica que se está atravesando en este momento. En el año 2009 hubo una recomendación por parte de los servicios técnicos del Ayuntamiento en el sentido de que se debieran reducir los gastos, porque la situación económica era la que era. El año 2008 terminó con un déficit de más de 600.000 euros, más de 100 millones de pesetas. En el año 2009 se hizo esa recomendación y en el 2010 se plantea seguir con la política de recortes en el gasto, ya que la situación económica no mejora por ningún lado. Por parte del



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Eta, ez al du, giza-arloan zein beste edozeinetan, beste lehentasunik udal kudeaketa egiteko garaian?. Galdera horiek egin litezke jakinik egungo egoera ekonomikoa nolakoa den, eta egoera

horretan oso zaila delako lurrazpiko garajeak egitearen aldeko apustua egitea. Bestalde, teknikarien aholkuak direla eta, Udalaren kontu-hartzaileak, txostenean, zera esaten du: gastuak murrizteko aferan, birplanteatu beharko litzakeela Udalaren Patronatu eta Organismo zenbaiten zeregina. Eta horien artean Errenteria Garatuz enpresa aitatzen da, obra hauek exekutatu ahal izateko eskubideak eta eremuak lagatzea planteatzen dena hain zuzen ere. Hau da, Udaleko zerbitzu teknikoek ematen dituzten aholkuak, ziur aski, ez dira ezertarako kontuan hartzen, baldin eta, horiek Gobernu Talde honen interes alderdikeriekin tupust egiten badute. Gastuak murrizteko ildo horretan ezin dute ahaztu pasa den maiatzean Aldundiak, udalen ekonomia tutelatzen duenak, tokiko administrazio guztiei gastuak %5 murrizteko aholkatu ziela. Horrelakoxea da panorama planteatzen ari diren gastuaren aurrean, gaineratu du. Horrezaz gain, ekonomia aferaren barruan, uste du obra nola finantzatuko den, hau da, nora eramango den obra horretako finantziazioa planteatu beharko litzakeela. Ezker Batuko ordezkariak aitatu du gaur eguneko demandak zulo handia eragin dezakeela, zeren eta, hitz egin baitezakete garaje-plazen heren batentzat bakarrik dutela hitz emanda, baina horiek oraindik ez dituztela bermatuak. Horregatik, nahikoa dute matematika-ariketa xume bat egitea antzemateko finantzazio horrek zulo handia eragin dezakeela

Udaleko diru-kutxa ahulduan. Era berean, euren iritziz, bada baloratu beharrekoa beste kontu bat. Izan ere, ez dute ahaztu behar, gaur bertan dauden 18 zinegotziak herri horretako herritarrek hautatu dituztela. Kontu jakina da, ez dituztela soilik Galtzarabordako bizilagunek hautatu, baina hauek ere bozkatzen dutenez, zinegotziek, teorian bederen,

resto de los Grupos, e incluso de la ciudadanía, cabe preguntarse si en esta situación económica la realización de unos garajes puede ser una prioridad para el Equipo de Gobierno y si no tienen otro tipo de prioridades a la hora de llevar a

cabo la gestión municipal, ya sea en el ámbito social o en cualquier otro. Cabe esa pregunta porque en la situación económica actual, muy dudosamente podrían apostar por la realización, en estos momentos, de unos garajes subterraneos. Entre lo que los equipos técnicos recomiendan, hay un informe del Interventor Municipal en el que dice que dentro de esa reducción de gasto, incluso se tendrían que replantear la función de algunos Patronatos y Organismos del Ayuntamiento. Entre ellos se menciona la empresa Errenteria Garatuz, que es la empresa a la que se plantea ceder los derechos y terrenos para poder ejecutar estas obras. Es decir, las recomendaciones que les dan los servicios técnicos del Ayuntamiento probablemente caen en saco roto cuando chocan contra los intereses partidistas que tiene este Equipo de Gobierno. En esa linea de reducción de gasto, no pueden olvidar que el pasado mes de mayo, Diputación, que es quien hace la tutela económica de los Ayuntamientos, recomienda que se reduzcan en un 5% los gastos de todas las administraciones locales en general. Ese es el panorama económico que se encuentran a la hora de abordar un gasto como el que se está planteando. Además, dentro del aspecto económico, habría que referirse a la financiación de la obra, es decir, ¿a dónde les lleva la financiación de esa obra?. El representante de Ezker Batua ya ha comentado que la demanda que existe

hoy en día puede generar un agujero económico de grandes dimensiones, porque están hablando de que se tiene apalabrado, no diría que garantizado, un tercio de las plazas de garaje que se van a construir. Con lo cual, mediante una simple operación matemática puede verse que esa financiación podría generar un revés hacia las tan delicadas arcas de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

